



## ERRUGBIA - OHOREZKO MAILA

# Haundi geratu zaio Ordizia, Hernaniri

Ez zen partidu erraza, inondik ere. Elurak eta bereziki, hotzak, zaildu egin zituzten gauzak, gainera. Azkenean, 41-12 galdu zuen atzo, Hernanik.

AURREKO partidua irabazita, indarberrituta iritsi ziren atzo hernaniarrak Ordiziara. Bazekiten ez zela partidu erraza izango, eta gogotsu atera ziren Altamirako zelaira. Ordiziarrak ordea, finago ibili ziren, eta partiduko lehenengo 20 minututan abantaila polita atera zieten trikolorrei. Hernanik hala ere, erakutsi zuen ez zegoela amore emateko prest, eta bigarren zatian puntu batzuk lortu zituen; ez ordea, nahikoak. /3

## ◆ TURISMOA HERRIAN

### Herriko plaza eta parkeetatik barrena

Hernaniarrentzako, edota txotx garaian herrira gerturazten direnentzako, ibilbide lasai bat proposatzen du Udalak: herriko 17 plaza eta parkeetatik pasatzen den buelta polita. /6

## ◆ ESPAINIAKO KLUBEN ARTEKO KROSSA

### Lau hernaniar, hainbat klubekin

Espainiako Kluben arteko Krossa jokatu da gaur Marina D'Or-en, eta tartean lau hernaniar izango dira, hainbat talderen izenean parte hartzen: Sergio Roman, Eider Aldabe, Eduardo Gallego eta Rosi Talavera. /3

## ◆ BOLA

### Binakakoa bukatuta, Oroimen tiraldia

Endika Alustizaren Oroimeneko XX. Bola Txapelketa jokatu da gaur Liztormendin. /3

## GAUR KRONIKAN

### LABURRAK /2

**Jasota Bezala:** Portalondo futbol zelaia. Mikel Gurutzeaga. /2

**Kirolak:** pala, esku pelota, futbola... /3

### ESKELAK /3

**Literatur Txokoa:** Muskuluak afaltzeko. Ibon Idoiaga. /6

### Agenda /7

**Korrika kulturala:** aste honetako ekintzak. /7



# Zuku guztia atera arte, korrika

ESPRINTEAN sartu ziren helmugara atzo, lehenengo bi korrikalariak: Eneko Garin billabonatarra lehenengo, eta Unai Señorán irurarra bigarrena. Atzetik, gertu-gertu, iritsi zen Ibai Alba hernaniarra. Nesketan, Claudia Behobide hondarribiarrak egin zuen lehenengo, laugarren urtez segidan. Hernaniarren artean berriz, Irene Osa izan zen azkarrena. /2

<b>LANZAROTE</b> Martxoaren 4, 11, 16, 18, 19 eta 21ean Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean, pentsio erdian	336 <sup>00</sup> €
<b>GRAN CANARIA</b> Martxoaren 17 eta 18an Bilbotik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean pentsio erdian	410 <sup>00</sup> €
<b>CABO VERDE</b> Maiatza eta Ekainean Madrildik hegaldia + 7 gau 4* Hotelean gosaria barne	589 <sup>00</sup> €
<b>DUBAI</b> Martxoaren 16tik 23ra Madrildik hegaldia + 7 gau 3* Hotelean gosaria barne	599 <sup>00</sup> €
<b>KRUZEROAK</b>	
<b>BRISAS DEL MEDITERRANEO</b> Martxotik Urriara arte. 7 gau TI : Barcelona-Tunez-Roma-Florenzia/Pisa-Genova-Monaco/Montecarlo Bartzelonatik irteera	495 <sup>00</sup> €
<b>GREZIA ETA TURQUIA</b> Apiriletik Azarora arte. 7 gau TI : Atenas- Santorini-Rodas-Efeso-Estambul-Mykonos-Atenas. Bartzelona eta Madrildik hegaldia	749 <sup>00</sup> €
<b>FIORDOS DEL NORTE</b> Maiatzatik Urriara arte. 7 gau TI : Copenhague-Stavanger- Bergen- Flam -Helsesylt- Geiranenger-Alesund- Trondheim. Bartzelona eta Madrildik hegaldia	1103 <sup>00</sup> €

## ASTE SANTUA

<b>LISBOA</b> Martxoaren 27tik Apirilaren 1era Donostiatik autobusa + 4 gau 3* Hotelean gosaria barne	316 <sup>00</sup> €
<b>GRANADA-CORDOBA</b> Martxoaren 27tik Apirilaren 1era Donostiatik autobusa + 4 gau 4* Hotelean gosaria barne	375 <sup>00</sup> €
<b>VENECIA</b> Martxoaren 31tik Apirilaren 4ra Bilbotik hegaldia + 4 gau 4* Hotelean gosaria barne	438 <sup>00</sup> €



AUKERA GEHIAGO ERE:  
[www.bidabilia.com](http://www.bidabilia.com)

**HERNANI  
BIDAIAK**

Urbieta, 6  
943 33 00 49

[www.hernanibidaiak.com](http://www.hernanibidaiak.com)



## ERRUGBIA - OHOREZKO MAILA

## Ordiziari ez, baina Athleticori baietz!

Derbia galdu zuen atzo Hernanik Ordiziaren aurka, 41-12. Athleticoren aurka jokatuko du hurrena, eta garaipena beharrezkoa izango du.

DERBIA eta Gipuzkoako Kopa galdu zituen atzo Hernanik, Ordizian. Hasieratik, ordiziarrak gehiago izan ziren. Baina hala ere, amore eman gabe eutsi zioten hernaniarrek, eta amaiera aldera puntu batzuk lortu zituzten, ez nahikoak, ordea, 41-12 galdu zuten.

Lehenengo zatia bukatzerako, Ordiziak 34 puntu zituen, eta Hernanik berriz, bat ere ez.

Hernanik orde, ez zuen amore eman, eta tinko eutsi zion partidua bukatu arte. Egindako lanaren emaitza izan ziren lortutako 12 puntuak. Igor Genuak lortu zituen lehenengo 7ak, entsaioa egin eta ondoren, hau gauzatuta. Partidua bukatzeko minutu baten faltan berriz, Iraitz Garmendiak lortu zuen bigarren entsaioa,



7 puntu lortu zituen Genuak.

baina hau ez zuten gauzaterik lortu. Azkenean, etxera itzuli ziren, bonusik ere lortu gabe.

## Giroa, hotza baina goxoa

Elur asko egin ez bazuen ere, hotz haundia egin zuen atzo Ordizian. Ondorioz, Altamira zelaiaren ondoan egitekoa zen bazkarira jende gutxi gerturatu zen.

Hala ere, herrian barrena zaletu asko ibili zen, tabernetan eta txarangarekin gora eta behera; baita hernaniarrek ere. Jarraitzaileen goxotasunik ez zuten falta izan jokalariek.

**Atheticoren aurka, bai ala bai** Hurrengo partidua martxoaren 16an jokatuko du Hernanik, Atletico de Madriden aurka, Landaren. Nahitaz irabazi beharko dute. ||

## KLUBEN ARTEKO ESPAINIAKO KROSSA

## Hernaniarrek ere tartean izango dira

Espainiako Kluben arteko kross labur eta luzeak jokatuko dira gaur Oropesan.

MARINA D'Or hirian egingo dira gaur lasterketak, Kluben arteko Espainiako Kross Txapelketan.

Goizeko 09:00etan hasiko dira lasterketak, eta lehenengo, kadete, jubenil, junior eta promesek hartuko dute parte. Eguerdian bertan berriz, absolutu mailako txanda izango da, eta kross luze eta laburrak egingo dituzte.

## Lau hernaniar tartean

Txapelketa klubaren artekoa da, eta beste herrietako taldeeta-

ko kide moduan parte hartuko badute ere, hernaniarrek izango dira tartean.

Kross laburrean Sergio Roman eta Eider Aldabek hartuko dute parte, Txindoki eta SuperAmara BAT klubekin, hurrenez hurren. Kross luzean berriz, Eduardo Gallego, Txindoki klubean, eta Rosi Talavera Goierri Garaia klubean ariko dira. Talde hauek ordea, ez daude faboritoen artean.

Txapelketa indibiduala berriz, martxoan egingo da. ||

## BOLA

## Oroimeneko tiraldia gaur

LIZTORMENDI bolatokian jokatuko da gaur Endika Alustizaren Oroimeneko XX. Bola Txapelketa, (10:00-11:30 / 16:30-17:30).

Gipuzkoako Binakako Txapelketa berriz, lehengo asteburuan bukatu zen. Urnietako Xabier Iruretagoiena eta J.A. Belaunzarán izan ziren garaile, 373 brilarekin. Hernaniarrek atzerago geratu ziren: M.Arrozpide eta A.Goenaga 7garren 355 brilarekin, M.Burugain eta J.Goenaga 14garren 334 brilarekin, eta A.Miner eta Ibon Miner 19garren, 308 brilarekin. Tiraldi indibidualan onena, Elur Txoriko Miguel Burugain izan zen, 49 brila botata. ||

## ◆ PALA - PELOTADENDA SARIA

## Bi partidua gaur Hendaian

Bi partidua jokatuko dira gaur Hendaiko Beltzenian, goizeko 11:00etatik aurrera: Muneta-Serre/Etchelecu-Arozena; eta Andueza-Mendizabal / Irazustabarrena-Ruiz de Larramendi. ||

## ◆ FUTBOLA - EMAKUMEZKOEN EUSKAL LIGA

## Puntuak lortzeko aukera, Alavesen aurka

Zubipen jokatuko du gaur Hernanik, arratsaldeko 18:00etan, Alavesen aurka. Aukera polita du, puntuak biltzen jarraitzeko, Alaves lau postu beherago baitago sailkapen zerrendan. ||

## ◆ ESKU PELOTA - PABLO ELOSEGI TORNEOA

## Ioritz Arrieta finalean gaur

Ioritz Arrieta hernaniarrek Pablo Elortegi Torneoako finala jokatuko du gaur, goizeko 11:00etan Ortuellako frontoian, Aitor Diaz pelotaria lagun duela. Eneko Muguruza eta Miguel Perez izango dituzten aurkariak. Bestalde, pelotari hernaniarrek partidua gehiago jokatuko dituzte gaur: bost Hernanin, beste bi Añorgan eta bat Gaskan. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



## ARANTZA MUNETA ARANBURU

ANDREA

(Gariokitz Paskual Muneta euskal presoaren ama)

Herenegun hil zen, 59 urte zituela

- Goian Bego -

Senarra: Gregorio Pascual Maiza; seme-alabak: Gariokitz eta Oihana Hemandorena eta Aitor; biloba: Iargi; anaia: Txomin; ezkon anai-arrebak: Elisa, Arantza, Elias, Edurne eta Koldo (†); Gorka eta Arantza, Mikel eta Ana, Xabi eta Lourdes eta Inazio (†); ilobak, izebak, osabak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **SEI ETA ERDIETAN, LOIOLAKO JESUSEN BIHOTZA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Donostian, 2013ko otsailaren 24an

Helbidea: Giuseppe Verdi, 5  
OHARRAK: Gorputza Errekaldeko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da goizeko 09:30ak arte.



## ARANTZA MUNETA ARANBURU

ANDREA

(Gariokitz Paskual Muneta euskal presoaren ama)



## HERNANIKO PRESO POLITIKO ETA IHESLARIEN SENIDEAK

Hernanin, 2013ko otsailaren 24an



## ESKERTZA

## Paco Seco Martinez

- Goian bego -

Pacoren emazteak, seme-alabak eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu bere eta gure ondoan izan zireten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2013ko otsailaren 24an



**OTAMENDI**  
Autoeskola

**CAP BERRIKUNTZA IKASTAROA (35 ordu)**

100% subentzionatuta

Plaza mugatuak

Izen-ematea: Otamendi autoeskolan (943 45 11 07)



ETXE  
TRESNAK



TELEBISTETAN  
AUKERA ZABALA



Hotz-gailuak  
Izotz-gailuak  
Labeak  
Garbigailuak



Punta-puntako markak

Txirrita Kalea, 13-15 Tel.: 943 55 11 25 faxa: 943 55 16 03



## HERNANIKO PARKE ETA PLAZETATIK IBILBIDEA

# Urrutira joan gabe, haur eta adinekoentzako ibilbide aproposa

Hernaniko Udalak ibilbide berri bat prestatu du Hernaniko parke eta plazak zeharkatzen dituen. 6km-ko ibilbidea da eta 17 parke eta plaza zeharkatzen ditu. Udalak bi helburu ditu: «bertakoei ibilbide lasai bat egiteko aukera ematea eta txotx garaian etortzen direnei, tabernetako giroaz gain, beste zerbaite eskaintzea».

AGUSTINDARREN plazatik abiatu eta Hernaniko gainera-ko plaza eta parkeak zeharkatuz, 6km-ko ibilbide lasaia prestatu du Hernaniko Udalak. Denera, herriko 17 parke eta plaza zeharkatzen ditu ibilbideak. Turismo informazio bulegoan eskuratu daiteke mapa.

Otsaila hasieran eman zuen ibilbide honen berri Udalak eta turismo planaren barruan jarri bada ere martxan, herritarrei begira egindako proiektua dela azpimarratu du Luis Intxauspe alkateak: «mugikortasuna, zahartzarora, turismoa... arlo ezberdinak hartu dira kontuan».

Izan ere, bi helburu ditu Udalak: «Alde batetik, bertakoei paseotxo bat emateko aukera eskaini nahi zaie, nahiz eta gehienek inguru horiek ezagutu. Adinekoentzat, esaterako, oso aproposa da, dena laua baita. Bestetik, txotx garaian autobusean etorri ohi direnentzat ere egokia izan daitekeela iruditzen zaigu. Ordu asko izaten dituzte libre eta askori ez zaie gustatzen denbora guztian tabernetan ibiltzea. Urrutira joan gabe, aukera ederra ematen du ibilbide honek, baita umeekin egiteko ere».

## Ibilbidean zehar, intereseko zuhaitziak, ondare historikoa...

Ibilbidearen mapan argi azaltzen dira ibilbidean zehar ikusi daitezkeen elementuak: intereseko zuhaitziak, ondare historikoko elementuak, haur jolasen gunea, kirol eremuak, bista panoramikoa... II

### 17 parke eta plazak

- Agustindarren plaza
- Pana parkea
- Goiz Eguzki parkea
- Gudarien plaza
- Tiloseta pasealekua
- Plaza Berri
- Atsegindegi plaza
- Latsunbeko parkea
- Karobieta parkea
- Atarrabio parkea
- Nere Borda parke botanikoa
- Mendi Mendian parkea eta igerilekua
- Iturmendi parkea
- Politena parkea
- Antziola Berriko parkea
- Bidebieta plaza
- Ave Maria parkea



Nere Borda parke botanikotik pasatzen da ibilbidea, bestek beste.



Agustindarren plazatik abiatzen da ibilbidea.

Agustindarren plazatik, Agustindarren plazara Ibilbidea Agustindarren plazatik abiatzen da. Bertatik Pana parkerako bidea hartuko dugu. Parkea zeharkatu ondoren, igogailua hartu eta Atzieta kalera igoko gara. Atzieta kaletik jarraituz, Goiz Eguzkiko parkera iritsiko gara. Bertan, intereseko zuhaitziarekin egingo dugu topo, bestek beste, Ginkgo biloba zaharra ikusiko dugu. Pista panoramikoaz gozatzeko aukera ere bada bertan.

Ondoren, Gudarien plaza-rako bidea egingo dugu. Bertan, udaletxea eta eliza ikusteko aukera dago, ondare historikoko bi elementu. Tiloseta pasealekutik jarraituz, Urbieta kalera iritsiko gara. Urbieta kalea zuzen jarraituz, Atsegindegi plaza,

Latsunbeko parkea eta Karobieta parkea zeharkatuko ditugu. Handik, Atarrabio parkera iritsiko gara. Errotondaren ezkerretik jarraituz, Nere Borda parke botanikoan sartuko gara eta ondoren, Latsunbetik Antziolara doan bidea eginez, Mendi Mendian parkera iritsiko gara eta bertatik Iturmendi parke berrira. Bista panoramiko ederra dago bertan.

Sagastiyatik Etxeberrirako paseoa segiz, Politena parkera joango gara. Bertatik, Florida kalea hartu eta Atletismo pista iritsiko gara, Antziola Berriko parkera, hain zuzen. Handik berriz, Bidebieta plaza pasa eta Ave Maria parkean sartuko gara. Bukatzeko, Latsunbe kaleari jarraitzea besterik ez dugu izango, Agustindarren plazara bueltatzeko. II

## LITERATUR TXOKOA



Hurrengo gomendioa martxoaren 31n argitaratuko da.

# Euskerazko liburuak gomendatzeko txokoa, Kronikan

Doberak eta Udal Liburutegiak jarri dute martxan Literatur Txokoa. Egitasmoarekin bultzatu nahi dute, herritarrek euskeraz irakurtzea. Gaurkoan, bigarren gomendioa dakar Kronikak.

LITERATUR Txokoa izeneko atal berria dauka Kronikak, urtariletik. Txoko honetan, euskeraz idatzitako liburuei buruzko gomendioak egiteko aukera dute herritarrek.

Dobera Euskara Elkarteak eta Udal Liburutegiak jarri dute martxan. Azpimarratu dutenez, edozein herritarrek hartu dezake parte egitasmo honetan: «Ez dute adituek egindako iruzkinak izan beharrik. Euskeraz idatzitako liburu bat gustatu bazaizu, gomendatzera animatzen zaitugu. Nahikoa da idaztea ze sentitu duzun, ze gustatu zaizun...».

«Ez dute adituek egindako iruzkinak izan beharrik. Euskeraz idatzitako liburu bat gustatu bazaizu, gomendatzera animatzen zaitugu. Nahikoa da idaztea ze sentitu duzun, ze gustatu zaizun...»

**Hilabeteko azken igandetan** Literatur Txokoak hilabeteko maiztasuna du. Hilabeteko azken igandetan argitaratuko dira herritarrek egindako gomendikoak Kronikan, 7garren orri honetan. Hasteko, urtarrilaren 27an

Udal Liburutegiak egin zuen iruzkina. Bertol Arrietaren *Alter ero* liburua gomendatu zuen. Gaurko honetan, berriz, Ibon Idoiagak egin du gomendioa. Birgit Vanderbeck-en *Muskuiluak afaltzeko* liburua irakurtzera animatu nahi ditu herritarrek.

#### Iruzkin laburrak

Iruzkinak edo gomendioak laburrak izan behar dute. 800 karaktere inguruko idatziak izango dira, gehienez. Idatzi horiek hainbat modutara entregatu daitezke: emailez, [dobera@dobera.com](mailto:dobera@dobera.com) eta [liburutegia@hernani.net](mailto:liburutegia@hernani.net) helbideetara idatzita. Edo zuzenean Doberara edo Udal Liburutegira eramanda. Egilearen izen-abizenak jarri behar dira iruzkinetan. ■

## Literatur txokoa

Bultzatzaileak:

### IBON IDOIAGAK GOMENDATZEN DIZU

## MUSKUILUAK AFALTZEKO

Birgit Vanderbeck

Ainhua Irazustabarrenak

euskaratua

*Oso gomendagarria da, hausnarketarako bide ematen du larderiazko eredueta ez erortzeko.*

Aitaren kanpo-bidaien itzulerak ospatzeko, afaltzeko orduan muskuiluak prestatzeko ohitura zuten narra-tzailearen familian. Gaurkoan ere, hala suertatzen da. Bidaia batetik dator aita, lanean postuz igoko zutela susmoa hartuta. Horregatik, afari berezi hori prestatu diote.

Hain ondo idatzita ez balego, zorabiatu lezakeen bakarriketa bat da eta baditu urte batzuk. Ingebor Bachman sari entzutetsua 1990. urtean irabazi zuen, (makina bat euri egin du ordutik). Jaioberria den Pasazaite argitaletxeak, Inportazioko liburuak sailaren barruan eskaini digu gomendagarria den Andrej Longoren Hamar kontakizunen euskerazko bilduma ere.



Liburuak gomendatu nahi duenak, kontuan izan beharrekoak: euskerazko liburuak gomendatu behar dira; 800 karaktere inguru idatzi; eta izen abizenak jarri. Bidaltzeko: [dobera@dobera.com](mailto:dobera@dobera.com) edo [liburutegi@hernani.net](mailto:liburutegi@hernani.net). Edo paperean eramane Doberara edo Udal Liburutegira.

### ✕ Asteko agenda

#### OTSAILAK 25, astelehena:

- **Korrika:** 'Heldu' dokumentalaren proiektzioa, Biterin 19:30etan.
- **Korrika:** erakusketa astelehenetik ostiralera, Biterin, 18:00etatik 20:00etara.

#### OTSAILAK 26, asteartea:

- **Ipuin kontaketa:** Kontalaria: Lur Korta. Udal Liburutegian. Bi saio izango dira: 17:30etan, 3-4 urtekoentzat eta 18:00etan, 5-7 urtekoentzat.

#### OTSAILAK 27, asteazkena:

- **Korrika:** Musika saioa hernaniar artisten eskutik: Ania eta Morau, Ane Galardi eta Nerea Berrotaran. Biterin, 19:00etan.

#### OTSAILAK 28, osteguna:

- **Kontzertua:** Morauen emanaldia, Ikatza Liburugunean 20:00etan.
- **Sendabelarrak ikastaroa:** ikastaroaren hasiera. Hizkuntza: euskera. Biterin, 19:00etatik 21:00etara.

#### MARTXOAK 1, ostirala:

- **Korrika:** 'Espetxeetan euskera ikastea' hitzaldia, Rikardo Mendiolaren eskutik. Biterin, 19:00etan.

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622  
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
☪ FARMAZIAK ● Eguz: ● Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793 ● Gauzez: ● Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Elurra mara-mara espero da, 1-100 metrora goizean, eta 0-200 metrora arratsaldean. Trumoi eta kazkabarra ere egin ditzake. Min.1º/Max.6º.  
**BIHAR** Trumoi-ekaitza eta kazkabarra egingo ditu. Hotza egingo du oraindik, baina elur maila 400 metrora igoko da arratsalderako. Min.2º/Max.7º. (euskalmet)

## KORRIKA 18



Korrika, martxoaren 23an iritsiko da Hernanira.

## 'Heldu' dokumentala ikusgai bihar, euskal emakumeen lana gogoan

Korrika kulturalaren barruan, hiru ekitaldi izango dira datorren astean. Horrez gain, egunero Korrika erakusketa izango da Biterin.

HELDU izan zen Korrika 15aren leloa 2007an; herriari, hitzari, elkarlanari, euskerari eta lekukoari heltzeko konpromisoa eskatu zuena. Euskal emakumeak izan ziren omenduak, euskera, belau-naldiz belaualdi, gorde eta transmititzeko egin duten lanagatik. Hori guztia bilduz, *Heldu* izeneko dokumentala egin zen eta dokumental hori ikusteko aukera izango da bihar 19:30etan, Biterin.

Korrika girotzeko, ekintza ezberdinak antolatu ditu AEK herriko talde ezberdi-

Ania, Morau, Ane Galardi eta Nerea Berrotaraneke emanaldia eskainiko dute.

nen laguntzarekin eta biharko dokumentala Txoko Feministaren eskutik izango da.

Musika saioa, asteazkenean Musika saio ederra eskainiko dute asteazkenean hernaniko lau artistek. Artista horiek izango dira: Ania eta Morau, Ane Galardi eta Nerea Berrotaran. Arratsaldeko

19:00etan izango da Biterin.

Ostiralean, hitzaldia Espetxeetan euskera ikasteari buruz hitzaldia emango du Rikardo Mendiolak, ostiralean. Arratsaldeko 19:00etan izango da Biterin. Hitzaldia Herrirak antolatu du.

Erakusketa, egunero Ekitaldi horiez gain, Korrika erakusketa ikusgai izango da Biterin. Asteleheneetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara eta larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara. ||

## IKATZA LIBURUGUNEA



### Maputxeei buruzko hitzalditik, Morauren kontzertura

Txile eta Maputxe herriari buruzko hitzaldia izan zen osteguneko Ikatza Liburugunean. Ondoren, Petaluda en Elm Street bakarlari kataluniarrek emanaldia eskaini zuen. Datorren osteguneko kontzertu bat izango da. Morau kantautore hernaniarrak joko du iluntzeko 20:00etatik aurrera. Umorea, gizartearen erretratu ironikoa eta pop kanta zuzenak entzuteko aukera izango da. ||

## IRAGARKI MERKEAK

Etxea Zentroan (Plaza Berri) alokatzen dut. 3 gela, sala, sukaldia eta komuna. Balkoi argitsua. Deitu: 620 922 471

Elizaxon pisua alokatzen dut. 60 m2, kafeakzioa gas naturalarekin, 2 gela, sala, sukaldia eta komuna. Balkoi argitsua egun osoan. Deitu: 649 040 933 (16:00etatik aurrera)

Salgai azero inoxidableko depositua. 3000 litroko kapazitatea. Hotz serpentinarekin. Egoera oso onean. Deitu: 943 55 00 08

Salgai sagardo kupelak hozteko V400 makina. Azero inoxidablekoa eta gutxi erabilia. 220V. Deitu: 943 55 00 08

www.lalores.info. Ezkontzak, haurdunaldiak, haurrak... behar dituzun argazkiak, modu onean. Deitu: 665 728 061

37 urteko emakumea sukaldian lan egiteko prest, astean zehar nahiz asteburuetan, Donostialdean. Esperientzia. Kotxea dauka. Deitu: 656 470 354

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## TXANTXILLA HERNANI



azken etxeak eta garaje itxiak

PREZIO BEREZIAK  
ESKAINITZA!

295.000 €-tik aurrera

3 logela. berehala ematekoak.

Informazioa

943 42 95 21

U.T.E. TXANTXILLA

RAUNE etxe enak

Animalien Ileapaindegia  
**KORAPILO**

Ileapaindegia Elikadura eta osagarriak  
Ordua aurretik eskatu Etxetik hartu eta entregatzeko zerbitzua

Victor Hugo kalea, 3 - Lizeaga - Hernani  
Telf. 943 04 83 98  
korapiloileapaindegia@hotmail.com

**ARALAR TABERNA**

GIRO EDERRA  
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8  
943 33 15 06

**JOXE MARI**  
EDARITEGIA

FIDELTASUN TXARTELA

Asteleheneetik ostiralera 9 kafe hartuta, 10garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzeari, zozketan parte hartuko duzu:

ASTEBURU BAT  
DEBAKO AISIA SPAN

Kale Nagusia, 7  
943 55 00 32